

LAKUA, 2015-02-18

Zertarako balio duten esaten zaila diren bilera horietakoa izan zen hau. Ez dira negoziaziokoak eta horregatik sindikatuko ordezkari bakarra baino ez dute onartzen. Horrezaz gain, aldez aurretik esan behar da zeintzuk diren tratatu nahi diren kontuak. Hasi bezain laster Begoña Otazuak esan zuen proposatutako gaiak negoziazio mahaikoak zirela. Hori dela eta, urliak edo sandiak daukaten arazoren bati buruz hitz egiten dugu, baina jakin gabe arazoak konpontzen ari garen. Dena ikusi, aztertu, kontsultatu behar dute; ez zaio inporta kexaren berri duela astebete zein hilabeteak izatea. Finean, plantak egin sindikatuekin harreman ona dagoela esan ahal izateko. Baina benetan gertatzen dena da aldez aurretik dena erabakita daukatela eta sindikatuen iritzia ahuntzaren gauerdiko eztula baino gutxiago dira.

AUZI-MEDIKUEN PAREKOTASUNA

Honen inguruan bilera izango dugula besterik ez zuten ziurtatu. Zuzendariak esan zuen oraindik ez dutela proposamen aztertu, baina berretsi zuten parekotasun bakarra Administrazio Orokorreko medikuekin baino ezin izango dela izan.

GEHIEGIZKO 5:30 ORDUAK

Lankide bat behartu nahi izan zuten egun osoa hartzera, bi ordurekin osatuz gero jakina. Argitu zuten aukerak honako hauek direla: ordutegi malgutik deskontatu edo eguna hartu, bi ordu gehiagorekin osatuz.

5:30 orduak ez dituenak aukera bakarra du, ordutegi malgutik deskontatzea.

Astehenean, hilak 23, argitaratu dute EIZUn 2015eko lan egutegia.

ZERBITZU-EGINKIZUNAK

Botere erakustaldi berri bat eskainiz, Administrazioak esan zuen egoki jotzen duenean baizik ez dituela zerbitzu-eginkizunak eskainiko. Ez bide du axola arauak sitema hori bitarteko langilerik ez dagoen lanpostu hutsetarako erreserbatzeak. Hori dela eta, banan banan aztertuko dituzte plazak eta komeniz gero aterako dituzte zerbitzu-eginkizunez hornitzeko.

Gaur arte -gehienbat etxetik urrun lan egiten zuten langileei begira- idazkariaren ezezko txostena gorabehera, kasua baloratu eta gero eginkizuna eman ohi zuen sailak. Hemendik aurrera txosten hori loteslea izango da, hortaz, beto-eskubidea onartzen diete idazkariei. Ikusten? Negoziaziorik ametitzen ez duten gaitako bat da hau: ez, eta kito.

2015ean DERRIGORREZ HE DUTEN PLAZAK

Baliteke LPZak aldatzen dituen ebazpena BOEn agertzeaz bat derrigorrezko eskakizuna ez duten bitarteko langileak lanpostutik kentzea, berariazko lehiaketa burutzean egin beharrean. Dirudienez, lanpostu hutsetik errefortzura pasatzea ilegala dela sindikatu batzuek duten ziurtasunak behartu du zuzendaritza kontua berriro aztertzeraz. LABek zerbitzu juridikoetan galdetu du eta esan digute figura hori ez dela lege kontrakoa: aldaketa argitaratuta, aurreko lanpostuak desagertu eta berriak sortzen dituzte dagozkien betekizunekin. Agerikoa da hizkuntza eskakizuna egiaztaturik duenak bakarrik jarrai dezakeela lanpostu horietan. 2010ean derrigortasuna zuten plazekin gertatu bezalaxe. BJZk egin dezakeen bakarra da zezatzea edo errefortzu gisa izendatu.

LABek eskatu zuen errefortzu moduan izendatzeko berariazko lehiaketa ebatzi arte honakoak direla-eta: a) lehiaketaren ondorioz lanpostutik botatzean beste plaza bat eskuratzeko aukera handiagoak dituzte (lehiaketek langile mugimenduak eragiten dituzte, titular zein bitarteko izan); b) baten batek hizkuntza eskakizuna garaiz egiaztatzea lortuz gero, plazan geratzeko aukera gehiago izango lituzteke titularrak bete ezean, jakina; c) LPZren aldaketarekin batera zesaturuz gero, ordezkatzera joango lirartekeen bitarteko langileak oso denbora laburrerako izango litzateke (hiru bat hilabete, lehiaketa burut artean). Aldiz, lehiaketa eta gero izendaturik lanpostu hutsean egongo lirarteke. Hori idazkaria konforme baldin balego, lan-poltsen inguruko arauaren azken aldaketak horrela izatea exijitzen baitu.

Ez dugu ulertzen kontu honen inguruan sortzen ari diren zalaparta. 2010ean arrazoi honengatik langile batzuk zesatu zituzten eta kexak bileretan baino ez genuen entzun. Ez sinadura bilketarik, ez beste ezer. Susmatzen dugu aurtengo hauteskunde sindikalek zerikusi handia dutela.

Ezin da derrigortasunari itxaron eta soluzio moduan eskatzea langileak prestatzeko. Duela urte luze batzuk hau bazetorrela badakigu. Inork ez du sinadura bilketarik egin ez prestakuntza ezta liberazioa eskatzeko. LAB aitzindaria izan da prestakuntza eskatzen eta langileak animatzen euskara ikastera. Ematen du orduko hartan beste sindikatuei hori ez premiazko iruditzea.

JAZk galdetu zien sindikatu horiei ea konturatzen ziren zein ondorio ekar zekarkeen errefortzuzko kontratu horiek legearen kontrakoa jotzeak. Horrez gain, Eusko Jaurjaritzak bitarteko langileak liberatzen dituela onartu zuten, baina gehituz gehienez jota 2 urteko ikastaldia dela. Justizia Administrazioan, ordea, langile batzuek 10 urte daramatzate euskaltegira joaten, 15 urte ere baten batek.

Nabarmena da, eta horrelaxe esan diegu, euskara ikasteko aukerak ematean administrazioak jokaera murriztailea daukala, titularrekin zein bitartekoekin, baina batez ere azken hauekin. Plantilaren ehunekoak, 4. maila gaudituta izatea eta beste betekizunak jarritz, aitzakiak bilatzen ditu ikasteko aukerak gutxitzeko. Ikustea besterik ez dago zer egin duten laborategiko lan kontratupeko langileekin: liberazioa ez ezik, bi orduko ikastaroak ere ukatu dizkiete, aurrekonturik ez omen dagoelako.

Prestakuntza arloan LABek ez du zalantzarik (bai euskara bai bestelako ikastaroekin): lan-poltsetak jende guztiak izan behar du ikasteko aukera. Kontrakoa batzuei mesedea egin besteen kalterako izango litzateke.

LANALDI MURRIZTUA ETA MALGUTASUNA

JAZk jo eta ke segitzen du. Malgutasunaz baliatzen uzten du baldin eta lanaldi murriztua tarte jakin batean eta ordutegi gogorrean eginez gero. LABek esan zuen bezala, erdizka bada ez da parekotasuna. Gaur egun langileak berak erabakitzen du zein ordutegi tartean egin lan (07:30ren eta 17:00en artean). Era berean egiten dute EJKo langileek euren ordutegietan. Ez da nobedadea: zer edo zer eman baino lehen kendu egiten dizute eskubide bat.

LEI

Bueltaka jarraitzen dugu kontu honekin. Otazuak onartu zuen ez zekiela nola zegoean gaia. Dirudienez, sailak ez dio utzi deskontuak egiteari eta, interesdunak hala eskatuz gero, itzuli egiten ditu. Informazioa jaso behar zuela esan zuen eta gero jakinaraziko zigula nola jokatzen ari diren.

Erreklamazioa bidali zutenei dagokienez, JAZk esan zuen laster hasiko zirela ordaintzen.

2012ko APARTEKO LANSARIAREN EPAIA

Jon Uriartek ez daki EJK zer egin behar duen, epaia errekurrituko ala ez. Haren esanetan, aztertzen dabilta zerbitzu juridikoetan. LABen errebindikazioa da: epai horretan oinarri harturik, ordain diezaietela langile guztiei. Haratago joan ginen baina, eta berriro esan genien hartutako konpromisoa betetzeko, hau da, aparteko lansari osoa ordain diezaietela euskal administrazioko menpeko langile guztiei.

LEKUALDATZE LEHIAKETA

Berririk ez. Plaza guztiak aterako dituzte, bete gabeak eta Barakaldokoak salbu.

BARAKALDOKO BJB

Ostiralean, otsailaren 20an, argitaratu zuten Barakaldoko LPZ. Diotenez, laster horko idazkariena ere aterako da. Gutxi barru berariazko lehiaketa argitara emango dute, bai eta kudeatzaile arduradunen lanpostuak hornitzekoa ere. Aurreratu nahi dute eta dena prest eduki akoplamenduari ekiteko ahal den bezain laster. Ez dute eperik aipatu.

GASTEIZKO BJB

Behin eta berriz Gasteizen izendatutako “errefortzuak” desagertzen joan behar direla errepilatu zuten. Begoña Otazuak esan zuen: “ez da onargarria existitzen diren errefortzu erdia Gasteizen egotea. Are gehiago, orain errefortzuak Barakaldon behar direnean”.

DENETARIK

Durango epaitegietan egiten duen hotzaren ondorioz, langileak gaixotzen dira eta baja hartzen dute. Sailak esan zuen baja hauei aplikatuko zaiela deskontua, gaixotasunaren oinarria ez baita lana. Oraindik horrelakoak eskatu behar ere! Sinestezina! Bajan egoteak ez du deskonturik ekarri beharko, ez Durango, ez inon. Borroka harantzago doa.

GASTEIZ, BARAKALDO ETA GUARDIAK

Sailak erabaki du Barakaldon, arratsaldetan bi pertsonak egitea guardia. Gasteizen antzekoa denez, pertsona bat kenduko dute eta baita bi pertsona egingo dute guardia. Baina aldaketa hau egingo da Barakaldoko akoplamenduarekin batera. Behin erabakia hartuta, zergatik itxoin behar da Gasteizen? Absurdoa da!

24 ORDUTAKO GUARDIAK

Urteak daramatza salatzen LABek. Langile batek baimena hartzen badu larunbatean guardian egonik, guardia ez kobratzeaz gain kentzen diote norberaren eginkizunetarako egun bat. Horrela, gainontzekoek baino zazpi ordu t’erdi gehiago egiten du. Hamaikagarren aldiz esan zuen Begoña Otazuak begiratuko zuela

LAN UZTE ILEGALA BILBOKO DEKANATOAN.

Arrisku handiko haurdunaldia zuen bitarteko langileak, eta errefortzu kontratua zuen Sailak kaleratu duen bitarteko langileak. LABek exijitu dio bertan behera utz dezala eta bere postuan mantentzen dezala langilea. Halere, sindikatuaren zerbitzu juridikoa gainean dago.

KONTSULTA MEDIKUENTZAKO DENBORA

Behin justifikatu ezkerro, lau ordu arte direla errepikatzen dute eta 45 minutu joan-etortzeko. Kasu hauek aparte, eta beti justifikatuak egon ezkerro, Sailak egun osokoa onar dezake.

Lizentziak eta baimenak direla eta, kexa anitz egon dira. Segun eta nork hartzen zaituen telefonoa erantzun bat edo beste jasotzen duzu, eta batzuetan ezta erantzunik ez, gaia eramaten duen pertsona lanean ez badago.

2015-02-24